15. Etxebizitza-tipoa eta hiriaren forma

1. Sarrera: Tipologia tipoak ikertzen dituen zientzia edo jakintza da. Zer da tipoa arkitekturan? Eraikin baten forma-egitura edo egitura formala adierazten duen kontzeptua. Eraikin ezberdinen arteko antzekotasun estrukturalak aurkitzen ditugunean tipoa zehazten dugu.
    - Historian zehar, originaltasunak oraindik garrantzirik ez zeukanean –XX. mendea baino lehenago–, eraikin gehienak tipoan oinarritzen ziren, gutxinaka garatzen eta eraldatzen joaten zena. Adibideak: Tipo basilikala, transeptuaren garapena elizetan eta gurutze-tipoa.
    - Tipo bereko eraikinek forma ezberdinak izan ditzakete (baina erlazio formal berdinak). Beraz, *tipoa* ez da *eredua*, zehazki kopiatzen ez delako. Adibideak: Tipo zentrala, tipo edo egitura zentrala gorputz erantsiekin, Alvar Aaltoren etxebizitzen abaniko-tipoa.
    - Tipo bereko eraikinek funtzio ezberdinak izan ditzakete. Adibideak: Errotonda-tipoa (museoetan, legebiltzar batean eta liburutegi batean); tipo linealak (Assoseko agora, Napoliko XVIII. mendeko garau-biltegia eta Aldo Rossiren Milango etxebizitza eraikin baten ataripea; Orrazi-tipoko Grassi eta Monestiroliren bi proiektu, *Palazzo della Regione*, Triesten, eta ikasle-egoitza Chietin, eta Aldo Rossiren *Baj etxea*, 1970).
    - Tipo bereko eraikinak garai ezberdinekoak izan daitezke, ohikoena ez bada ere. Adibidea: Tipo artikulatua (Hadrianoren landetxea, II. mendekoa eta Kahnen Valyermoko abatetxea, 1966koa; Olintoseko patio-etxeak, K.a. V. mendekoak, eta Mies Van der Roheren patio-etxeak, 1930. hamarkadakoak).
    - Tipo antzerako eraikinak eskala eta tamaina ezberdinekoak izan daitezke. Adibidea: Bernako partzelazio ertaroarra eta Le Corbusierren Marsellako *Unite d'Habitation* proiektuaren oinplanoak, 1947-52.

2. Hala ere, orokorrean garai bakoitzean tipo bat hedatu eta garatu zela esan daiteke. Tipoak ezagutzea, etxebizitza-tipoak, are gehiago, ezinbestekoa da hiriaren historia ezagutzeko, eta hiriaren forma ulertzeko. Hazkunde formarekin oso erlazionatua dago tipoa, partzelek eraikinekin harreman estua dutelako (tipoak hiriaren forman eragina du, hortaz). Egitura-tarte eta argiztapen naturalarekin erlazionatuta dago ere bai.
    - Grezian patio-etxearen tipoa garatzen da, biziki erlazionatua dagoena sare hipodamikoarekin. Adibideak: Olinto, 35 x 90 metroko *insulae* edo etxe-irla eta 17 x 17 metro inguruko etxea; Priene, 35 x 47 metroko *insulae* eta 8,75 x 23,50 metro inguruko etxea. Ponpeiako lehen handipena, 35 x 100 metroko *insulae*; *Faunoaren etxea*k irla osoa hartzen du.
    - Erdi Aroko hiribilduan aneka-etxearen tipoa garatu zen, batez ere. Adibideak: Gasteiz, Arrasate, Segura eta Guardia (J. I. Linazasororen ustez aneka-tipoa Gotikoan agertzen da, etxeetako atzeko baratzeak erabat betez); Clunyko etxe-tipoa, eskailera linealarekin, beraz, fatxadarekiko paraleloak diren eustormekin (patioa ere badu).
    - Napoli, Italia. Greziar-erromatarren hiri-sarea oraindik ikusgarria da. Kardo Maximoa gaurko *Via Duomo* da, eta Dekumano Maximoa, gaurko *Spaccanapoli* kalea. Etxe-tipoa erabat aldatu da, baina hiriaren forma mantentzen da (35 x 175 metroko *insulae* edo etxe-irlak). XVI. mendean espainiarrek *Espainiar auzo* erregularra eraiki zuten harresietatik kanpo, Sant'Elmo magalpean. Etxe-irlek 20x20 metro dituzte, bederatzi zatitan banatzen direla (3 x 3 zatiko tarte-hormetan).
    - Bartzelona. XVIII. mendean harresietatik kanpoko herri berria eraikitzen da 1753. urte aldera, portuko etxola zaharrak eraitsi eta ordezkatzeko: La Barceloneta auzoa. Etxe-irlak luzeak eta estuak dira (75 x 8,4 metrokoak), bertako etxe tipoak 8,4 x 8,4 metro gordin dituelarik, inongo patioren beharrik gabe bi fatxada dituelako. Erdian, kalearekiko paralelo, eustorma dute. Hasiera batean, bi pisuko familiabakarreko etxebizitzak ziren. 1860an Ildefons Cerdaren zabalgunea proiektatzen hasten da (1798an 130.000 biztanle zeuden harresien barnean, 860 biztanle/ha). Etxe-tipoak 20 metroko sakonera du, erdigunea aireztatzeko barne-patioak beharrezkoak dituela (zabalera 16 metro ingurukoa, lau hormartetan banatua).